

Lezok ipuin kontaketak antolatu ditu liburutegian

Haurrek urriaren 15ean izango dute lehenengo istorioa entzuteko aukera.

Aurten ere, herriko txikientzat ipuin kontaketak antolatu dituzte Lezoko Andreone udal liburutegian, asteazkenero, azaroaren bukaerara arte. Ekintza hau lau eta sei urte arteko haurrentzat izango da eta ekimen honen antolatzaileek eskatu dute ipuin kontaketarako zehaztu duten adineko haurrak joan daitezen.

Kontaketa guztiak 18.15ean eskainiko dira Andreone liburutegian bertan eta lehenengoa urriaren 15ean izango da. Guztira zazpi istorio entzuteko aukera izango da. Herrira sei narratzaile esangura-tsu eta Korri eta Xalto pailazo lezoarrak gerturatuko dira.

Programa Esan bezala, lehenengo ipuina hilaren 15ean izango da. Egun horretan, Lupe Lekuonak Kezka Muxelak ipuina kontatuko du.

Urriaren 22an Ixabel Millet kontalariaren txanda izango da Animaliak mintzo ziren garaian obrarekin. Hurrengoa, Antton Irusta izango da eta Zu eta ni kontu kontari istorioa aurkeztuko du.

Azaroan zehar beste lau ipuin ezagutzeko aukera izango da. >a.m.